



GAUR HASIKO DA ABESBATZEN LEHIAKETA

21 abesbatza ariko dira lehian; Eduardo Mokoroa musikari tolosarraren heriotzaren 50. urtemuga izango dute gogoan **2-3**

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-10-28**

VII. URTEA 1.812. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo egin zuen Berrobikoak bere azken liburuaren aurkezpena Donostian. R. CALVO

MANUEL IRADIERREN BIOGRAFIA KALEAN

BERROBI Gasteiztarraren figura berreskuratu du Ramon Olasagastik 'Manuel Iradier. Afrikako arimaren esploratzailea' liburuan **6**

Bello-Porturen korurako lanen bigarren zatia kaleratu dute

TOLOSA Lan honekin osatu dute korurako erreperatorioa; gaurtik aurrera jarriko dute salgai CDa, baita Abesbatzen Lehiaketan bertan ere **3**

Aiz-Orratzen urteurreneko azken ekitaldiak

TOLOSA Gaur txistu, piano eta ahots kontzertua izango da eta etzi Asier Izagirrerren hitzaldia **7**

Juantxo Agirrerren hitzaldiak irekiko du Kultur Hamabostaldia

Javi Otxoari omenaldia egingo diote 'Atila y los unos' taldekideek

OREXA 'Orexa eta Erdi Aroko gazteluak' eskainiko du gaur, 21:30etik aurrera **6**

TOLOSA Abenduaren 26rako antolatu nahi dute ekitaldia Bonberenean **4**



Ahotsik ederrenen atzean ere, kutxa dago.

Tolosako 41. Abesbatza-Lehiaketa
Urriaren 28tik azaroaren 1era

Urtero bezala, gure **Gizarte Ekintza**ren bitartez, aurtan ere laguntza ematen diogu **Tolosako Abesbatza-Lehiaketari**, beronen 41. Edizioa babestuz, gure herriaren **musika, kultura eta** balioak zabaltzearen.

gizarte ekintza

kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Eduardo Mokoroa musikari tolosarraren heriotzaren 50. urtemuga gogoan izango dute gaur hasikoden 41. Abesbatza Lehiaketan, 'Txantxibirin' bere obra behartua izango da ahots nahasientzat.

Mokoroaren 50. urteurrena

JOXEMI SAIZAR

Tolosako musikari handienetakoren heriotzaren 50. urtemugan, Abesbatza Lehiaketak gogoan izango du, bere obra bat jarritz kompetizio-ko behartu gisa: *Txantxibirin*. Eduardo Mokoroak musika alor asko ikutu zuen, tartean abesbatza mundua, zuzendari eta konposatzaile gisa.

Kontatzen dutenez, Felipe Gorriti konturatu zen Mokoroaren ahots ederraz, haurra zela, tiple gisa kantu batzuk entseatzeko entzun zuenean. «Kasualitatez, Felipe Gorriti maisua handik pasatzen zen eta kaletik entzuten zen ahots harekin txoratuta gelditu zen. Eskaileratan gora korrika abiatu eta tiplearen izena galdetu zuen. Eduardo Mokoroaren eta berehala Gorritiren tiple koadroan sartu zuen. Orditik aurrera bere ikasle kuttunena, laguntzailea eta hura hilzenezan 1896an ordezko bihurtu zuen. Bere hileta elizkizunetan Mokoroak bere omenezko hileta martxa estreinatzen zuen Musika Bandarekin», Iñaki Linazasoren Tolosa herri musikaria liburuan aipatzen denez.

Tolosako Orfeoaren zuzendari



Eduardo Mokoroa, Gregorio H. Oñatiak egindako olio-pintura. HITZA

gisa, sari ugari irabazi zuen, Remigio Mujikak eta Secundino Esnaolak zuzentzen zituzten Donostiako eta Iruñeako orfoeikin lehiatzen.

besteak beste. Orfoeirako konposatzaile gisa *Egun sentiya*, *Judica*, *Domine*, *Gona gorria*, *Sorgiñ dantza* eta *Euzkeraren eriotza* dira eza-

gunenak. Tolosako Orfoeiak estreinatzen zuen Leidor opera ere berea da, Emeterio Arrese idazlearen testuan oinarritua. Wagnerren jorera duen *Sudun* opera ere egin zuen.

Gehiagok ere Mokoroa gogoan CIT-TEEren ekimena ez da aurtengo bakarra izango. Tolosako Orfoeiak eta Santa Maria kapera musikak ere Mokoroaren heriotzaren urtemuga gogoan izango dute bi kontzertu elkarrekin eskainiz, bere *Missa in honorem Sancti Joannis Baptiste* lau ahots nahasi, herri abesbatza, organoa eta orkestrarako.

Tolosako ikasleek San Joan egunean abesteko konposatu zuen obra hau Eduardo Mokoroak, baina ikastaro bukaeran behar bezala ezin zuten entseatu, Inmakulada eguneko mezetara pasatu zen eta izen horrekin da ezaguna. Garai batean herriko haur guztiek ikasten zuten meza hau, horregatik dago hain sustraitua herrian. 1930ean Alfonso XII. Erregearen aurrean abestu zuen Tolosako Santa Mariako musika kaperak Gasteizko Seminarioaren inaurgurazioan.

EDUARDO MOKOROA: TOLOSARDEKO EMAN DUEN MUSIKARI ONENAREN BIOGRAFIA

Eduardo Justo Mokoroa Arbilla Tolosan jaio zen 1867ko urriaren 13an eta bertan hil zen 1959ko urtarrilaren 30ean.

Felipe Gorriti eta Modesto Letamendiarekin ikasi zuen organoa, harmonia, kontrapuntoa eta fuga. Tolosako Orfoeiarren eta Udal Musika Bandaren zuzendaria izan zen eta Santa Maria kapera musikako organojolea.

Azken postu hau gero bere seme Ignacioren utzi zion. Irakas-kuntzan aritu zen, organojole, zuzendari eta konposatzaile eskola sortuz.

Organo, orkestra, banda eta abesbatzarako ehun obra baino gehiago konposatu zuen, erlijioso eta profano. 1942an Tolosako Udalak seme kuttun izendatu zuen, Donostiako Orfoeiak eta Felipe Gorriti eskolaniak ohorezko zuzendari izendatu zuten eta 1943an Alfonso X. Jakintsuaren Gurutzea eman zioten.

Bere semea Ignacio Mokoroak (1902-79) ere berarekin ikasi eta bere bide jarraitu zuen Tolosako Santa Maria parrokiako organojole eta konposatzaile gisa.

Besteak beste, abesbatzentzako obra asko konposatu zituen Ignacioren eta horietako batzuk behartuak izan dira Tolosako Lehiaketan.

Italia, Letonia eta Txinako abesbatzak Lehiaketako saioak hasteko

Abesbatzak» Tolosako 41. Abesbatza Lehiaketako saioak gaur hasiko dira Leidor aretoan folklore eta polifonia sailetan

J. SAIZAR

Ahots nahasietako hiru abesbatza izango dira aurtengo Lehiaketako kompetizio saioak zabalduko dituztenak gaur 19:30ean Leidor aretoan: Musicanova (Italia), Swedbank (Letonia) eta Peiyang (Txina).

Fabrizio Barchi da abesbatza italiarraren zuzendaria. 1999an sortua, Italian eta atzerrian aritu dakantari, sari ugari lortuz, tartean Arezzo, Marktoberdorf, Tours, Maribor eta Goriziako lehiaketak ospetsuetan.

Letoniako taldea (lehen Hansabankas izenaz) Artur Arcansek zuzentzen du eta herrialdeko hartako bost onenen artean dago.

Tin Jin unibertsitateko abesbatza txinatarraren zuzendaria Ren Baoping da. 1985ean sortu zen. Telebistants eskaintzen dituzte bere kontzertuak. Iaz Hong Kongeko Lehiaketan sartu zuten.

» INKESTA

1. Zer esan dezakezu Eduardo Mokoroaz eta bere lanaz?



«'Leidor' antzoki guztietan entzun beharko litzateke»

Andres Ruiz Tarazona
MADRILGO UDALDEKO MUSIKA AHOLKULARIA

1. Konposatzaile bikaina izan zen Eduardo Mokoroa tolosarra, obra oso duin eta garrantzitsuekin. Berak egindako *Leidor* opera estatuko antzoki guztietan entzun beharko litzateke, baina euskaraz izanda, ez da hain erraza horrelako zerbaitek aurrera ateratzea. Abesbatzentzat konposatutako obra oso garrantzitsua du, Erromantizismoaren oinarria, bere konposizioetan herri musika sartu zuelako. Bere garaiko mugimendu nazionalistako partaide da, 98ko belaunaldiko Guridi, Conrado del Campo, Facundo De la Viña eta beste batzuk bezala. Tolosako Abesbatza Lehiaketako ia edizio guztietan izan naiz eta *Txantxibirin* obra behartua besteetan entzun izan dudala uste dut.



«Orkestra instrumentazio interesgarria du»

Juan Jose Ocon
ORKESTRA ZUZENDARIA

1. Musika aparta du Mokoroak. Herri mailako musikaria izan arren, nazioarteko maila izan beharko luke. Instrumentazio oso interesgarria du orkestrarako, oso zorrotza, ez delako edozein gauza, kolore desberdinak bilatzen dituelako partituran zehar. Abesbatzentzat konposatutako musikan ere oso ona da, bost euskal konposatzaile onenen artean sartuko nuke nik tolosarra. Berak egindako *Leidor* operaren estreinaldia zuzendu nuen duela urte batzuk Leidor abesbatza eta Irungo orkestrarekin eta lau orduko obra handia da. Orduan grabatu genuen diskoa bitxi bat da. Donostiako Musika Bandan ere bere obra batzuk interpretatu izan ditut eta abesbatzekin ere bai.



«Musikari nabarmena da estatuan eta nazioartean»

Esteban Elizondo
ORGANOJOLEA

1. Mokoroa musikari nabarmena da estatu eta nazioarte mailan. Konposatzaile handia. Tolosako kapera musikak garrantzi handia izan zuen. Bere eta Ignacio semearen organorako obra guztia disko batean grabatu dut eta *Revista de Musicologian* dago argitaratuta. Ezagutzera ematen saiatu izan naiz beti: Urruñan interpretatzen nuen, aurtengo Donostiako Musika Hamabostaldian beste organojole emanez bere musikari. Aita berriz, oso bete, oso akademikoa izan zen, bere obrak ondo neurtuta daude, beti erreferentziak ditu. Musika Kaperari Felix Maria Samaniego alkateak eman zion bultzada. Plaza horretarako lehiaketa egiten zen eta jende asko etortzen zen. Felipe Gorritik elizako musikatik bizi zen, Udalak ordainduta. Mokoroak ez zuen horren beharrik eta ondorengo organojoleek baldintza horiek galduta dituzte. *Txantxibirin* obra behartua ezagutzen ditut, herrikoa da. Obrak horren beste harmonizazio batzuk ere badira.



«Oso klasikoa izan zen, bete, akademikoa»

Ander Letamendia
TOLOSARDEKO MUSIKAKO ZUZENDARIA

1. Eduardo Mokoroa oso musikari klasikoa izan zen, beti bere maisu Felipe Gorritiren eskutik ibili zen. Bere semea Ignacioren aldaketa handia eragin zuen, ikutu moderno emanez bere musikari. Aita berriz, oso bete, oso akademikoa izan zen, bere obrak ondo neurtuta daude, beti erreferentziak ditu. Musika Kaperari Felix Maria Samaniego alkateak eman zion bultzada. Plaza horretarako lehiaketa egiten zen eta jende asko etortzen zen. Felipe Gorritik elizako musikatik bizi zen, Udalak ordainduta. Mokoroak ez zuen horren beharrik eta ondorengo organojoleek baldintza horiek galduta dituzte. *Txantxibirin* obra behartua ezagutzen ditut, herrikoa da. Obrak horren beste harmonizazio batzuk ere badira.

Tolosako herria eta lehiaketa I



» Iritzia

Migel Zeberio
Koru zuzendaria

Tolosan, Euskal Herriko herriertain batean, hasia zaigu jada koru festa mundiala. Aniztasun handiagorik astebetetz biltzea zaila litzateke eta hau goi mailako ordezkariez osatuta dela jakinik, ia ezinezkoa. Horrelako egitaraua antolatzeak gauza zaila badirudi, nola uler daitezke gainera, talde arrakastatsu hauek, tolosar bi konposagileen obra ahotan harturik aritzea. Zerk erakartzen ote ditu lurraeren mutur eskatzen hona, gure kulturara hurbiltzera egiten duten bidaian?

Aurten abesteko aukeratu dituzten bi obra behartuei erreparatzen badiegu, Lehiaketa honen zergati batzuk argituko dizkiguten historian murgiltzen lagunduko digute.

Eduardo Mokoroa (1867-1959), eta bere ikasle Javier Bello Portu (1920-2003), XIX eta XXI mendeen arteko zubi musikala eraiki zutenetako bi konposatzaile handi. Lehenaren, euskal folklorean oinarritutako *Txantxibiri* obra eta bigarrenaren *In Monte Oliveti* (1944/1949) ordezkatuko dituzte.

Lehena XIX. Mendean ondarean kokatua. Erromantizismoaren azken urteak dira musikaren historian, estetika honek Euskal Herrian Italiako eragin dekadentea eta atzerakoa izan zuen eta euskal musikak berrikuntza gutxi eskaini zuen. Musika herrikoia indartuz zihuan, nazionalismo musikalaren aitzindari.

Korronte berria bultzatzeko, EHan lehiaketak antolatzen ziren Lore-Joku edo Euskal-Joku izenpean, musika herrikoia zabaldu eta lantzearen. Mokoroak 1891an irabazi zuen Donostiako, orkestrarako Euskal Soñua sinfoniarekin.

Mende amaierako euskal berpizkunde honetan emango den beste bereizgarria Elkartar filarmoniko eta Orfeoien sorrera izango da. 1896 Donostiako Orfeoa, 1901 Tolosako, Centro Musical Tolosaren babesean eta Mokoroa buru.

Bigarrena, gerra osteko urte ilunetan Bello Portu sortua da. Hone-ladior: Eduardo Mokoroa Jaunari mirespenez eta maitasun agurgarri. Obra honetan, urte asko aurretik Eduardok Aste Santurako idatzitako Et himno Dicto maisulanaren erreferentziak, hizkuntza gaurkotuan lantzen ditu.

Baldintza hauek eta beste batzuek egingo du Tolosako herria, prestigiozko Lehiaketa honen antolatzaile izateko arrazoi. Falta direnak biharkoan irakurri ahaliko dira.

Kalean da Bello-Porturen korurako lanen bigarren zatia

Tolosa » Gaurtik aurrera salgai da CDa, baita Abesbatza Lehiaketan ere, honekin osatuta geratzen da korurako erreperitorioa.

ERREDAKZIOA

Jabier Bello-Portu kultur egitasmoak artista tolosarraren obra biltzen duen bigarren diskoakaleratu du. Lehendabizikoa joan den urteko apirillean argitaratu zuten, eta honekin, orduan hasitako lana osatu dute. Oraingo honetan ere, diskoarekin batera, obra bakoitzaren inguruko testuak eta partiturak kaleratu dituzte. Alejandro Zabala piano jotzailea arduratu dalan hau egiteaz. Ekimenaren bultzatzaile diren Enrique eta David Azurza anaiek aurkeztu zuten herenegun bigarren lana. Gaurtik aurrera salgai izango da diskoa musika dendetan.

Nabarmentzekoa da, gaur bertan hasten den Abesbatza Lehiaketan, polifonia atalean, abesbatzek derrigorrez abestu beharreko kantua Javier Bello Porturen *In monte Oliveti* izango dela. David Azurza anaiek aurkeztu zuten haren izatea oso garrantzitsua da, «gure erreperitorioa mundu osora zabaltzeko bideetako bat baita». Bestalde, Tolosako Ekinbide Etxearen laguntzari esker, Leidor antzokian ere erosi ahal izango da egun hauean argitaratu berri den diskoa. Disko honetan ere, Kea ahots taldeak abestu ditu kantua.

Bi diskoek, Bello Portu korurako idatzitako 40 abesti inguru biltzen dituzte. Bertan aurkitu daitezkeen abestietako batzuk argitaratu gabe zeuden oraindik ere. Hori dela eta, partiturak ere gehitzea erabaki dute. Ahots berdineko taldeentzat egindako abestiak, latinezko polifonia eta abesti herrikoiak aurkitu daitezke, besteak beste bilduma honetan.

David Azurzaen hitzetan, Bello Porturen lan gehiena nahiko ezeguzuna da. «Doinuak herrikoiak izan arren, moldaketa hauek ez dira horren ezagunak» gaineratzen zuen. Abestiak, koru batzuekin lantzen zituen, baina oho har, ez ziren gehiegi zabaltzen.

Egitasmoaren lehen urratsak

2007ko martxoan sortu zen Javier Bello-Portu Kultur egitasmoa, hau da, musikaria hil eta hiru urtera. Elkartearen helburuetako bat da «portu maisuaren lana eta figura ezagutzera ematea». Honenbestez, konposatzailearen korurako erreperitorioaz gain, beste lan batzuk argitaratz jarraitzeko asmoa dute. Bakarleri eta instrumentu talde txikiengatik egindako obrak, nahiz orkestrerentzako eginak argitaratz jarraitzeko asmoa dute.

Tolosako musikaren inguruko datuak osatu behar direla uste dute elkartekok. Hau da, konposatzaileak, zuzendariak, jotzaileak, ongano-jotzaileak, kaperetako maisuak, kontzertuak, ekitaldiak... izendatu eta hauek datu base batean bildu. Ondoren, informazio hau



Hogei obratik gora, CDan. HITZA

guztia herritarrei helarazi ahal izateko. Proiektu honen izena *Erre-sumiña* da, gure artean, urretxin-dorra bezala ezaguna den txoria, hain zuten ere. Honen arduraduna David Azurza da, eta Tolosako musikariaren artxiboen datu base bat egiteaz gain, musika ondarea katalogatzea du xede. Hala, Bello-Porturen languztiakaleratu ostean, Tolosako beste egile batzuenekin hasi nahi dute elkartekok.

Euskal kantugintzari ekarpen handiak egin zizkiona

Musika eta literatura izan ziren Jabier Bello Portu tolosarraren artearen ardatzak. Musikan, jotzaile, kompositore eta musikologo izan zen. Erromantizismoko Literatura Unibertsala oso ongi ezagutzen zuen, baita 98ko belaunaldikoena ere. Non ikerketa garantzitsuak egin zituen, Azorin, Baroja, Unamuno eta beste hainbaten inguruan.

Jotzaile gisa, abesbatzetako zuzendari izan zen, baina lan gehiagoko egin zuen orkestrerkin.



N-1eko autobus geltoki berritua

IRURA » N-1eko autobus geltokiak kexa asko izaten zuten. Udalak nahi ez bazuen ere Foru Aldundiak, geltokia lehengo lekuan mantendu du. Marimi Ugalde alkateak dioenez «aukera txar guztien artean hobere-

na izan da eta orain oso txukun utzi dute. Lehengoaren aldean hobeto dago. Beste patxara bat du». Herri-tarek diferentzia nabaritu dute, «mementoz udal-txera ez da inor kexatzera etorri» gehitu du. HITZA

Laburrak

Itxigo Altolagirren lanak ikusteko azken aukera

TOLOSA » Itxigo Altolagirren erakusketa oraindik ikusi ez dutenek, aste honetan izango dute azken aukera. Izan ere, bere margolanak larunbatera arte egongo dira jarrita Aranburu Jauregian. Erakustaretokak 17:30ean irekitzen ditu atekak, eta 20:30ean itxi.

Aste honetan ez da Zine-Forumeko saiorik izango

TOLOSA » Abesbatza Lehiaketa dela eta, ostegun honetan ez da Zine-Forumeko saiorik egongo Leidorren. Honetaz gain, asteburuan igandean bakarrik izango dira emanaldiak. 19:30ean eta 22:00etan, *El secreto de sus ojos* izango da ikusgai.

Bide Ertzeanek Bilbon aurkeztuko du azken lana

TOLOSA » Bide Ertzean talde tolosarra datorren astean hasiko da *Leidor sessions* lan berriaren aurkezpen kontzertuak ematen. Lehendabizikoa Bilboko Kafe Antzokian izango da, azaroaren 3an. 20:00etan hasiko da emanaldia.

Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 6292423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Txikien eta handien parranda

ALTZO • Larunbatean, Poxpolo eta Mokolo pailazoak izan ziren eta jende asko gertutaratu zen bertara. Argazkiak ere atera zituzten gaztetxoekin. Igandean, jubilatuen eguna ospatu zuten. Meza Nagusiarekin hasi zuten eguna eta bertan Altzoko abesbatza izan zen kantari. Ondoren, Artea dantza taldekoen emanaldia izan zuten. Bazkaltzeko, 20 lagunetik gora elkartu ziren jatetxean, alkatea bera ere. Bazkalostea alaitzeaz Zeberio eta Mañukorta bertsolariak nahiz trikitilariak arduratu ziren. HITZA

Abenduaren 26an Javi Otxoa omenduko dute

Tolosa • 'Atila y los Unos' taldeko kideek omenaldi irekia antolatu nahi du beren baxu jolearen oroimenean.

E. MAIZ

Javi Otxoa *Atila y los Unos* taldeko baxu jotzailea zen baina ekainean, ustekabean hil egin zen. Hori dela eta, bere gertukoek omenaldi bat egin nahi diote. Abenduaren 26an Tolosako Bonbernean izango litzateke. «Gure adiskide eta taldekiaren oroimena izango da» ekitaldi honen ardatza. Omenaldi irekia

egin nahi dute, hau da, bertan edozein motako aktibitateak gauzatzeko aukera eskainiko dute.

Horretarako, *Atila y los Unos* taldeak harremanetan jarri nahi du omenaldi horretan, musikaren arloan edota beste edozein motako maila artistiko eta partizipati-boetan esku hartzeko prest leudeken talde edo pertsonekin.

Parte-hartzea irekita

Javi Otxoari abenduaren 26an egingo dioten omenaldian parte hartu nahi duen orok, lehenbailen antolatzailerekin harremanetan jarri beharko du. Edota edozein zailantza edo argibide gehiagorako

hiru telefono zenbaki jarri dituzte: 627459931 (Iñaki Ruiz), 670960233 (Roberto Prados) eta 629667338 (Jesus Prados).

Historia duen taldea

Atila y los Unos orain dela 23 bat urte jaio zen. Musika talde gehienak bezala, lagunartean hasi ziren jotzen. Garai haietan Udalekoek kontzertu erraldoi bat antolatu zuten eta bertan, Tolosako talde guztietik parte hartu ahal izan zuten. Ekaina bitartean, oraindik ere hasierako seikotea mantentzen zen taldean: Jesus (Atila), Iñaki, Xabi, Koldo eta Rober ziren Javi Otxoaren taldekideak.

Laburrak

Arte Plastikoan izena emateko azken egunak

TOLOSA • Txitxi Orbegozok eskaintzen dituen Arte Plastikoen tailerretan oraindik toki batzuk libre daude. Tailerra, haur eta helduentzako marrazketa eta pinturarako hastapenak da eta azaroan hasiko da. Irakasleak, Txitxi Orbegozo eta Helga Massetani izango dira. Gazte eta helduen tailerrak, ostegunetan izango dira eta haurrentzat berri, astelehenetan. Bi adin tartetan banatu dituzte; 6 eta 7 urtekoentzat, 14:45 etatik 18:15etara eta 8 eta 11 urte artekoentzat 18:00etatik 19:30etara izango lirateke. Izena emateko edo informazio gehiagorako 669694321 edo 617238062 telefonora deitu behar da. Tailerra, Igarabide kalea 1, bigarren pisuan izango da.

19:00etan Odola emateko aukera Kultur Etxean

ASTEASU • Gaur 19:00etatik 21:00ak bitarte, Asteasuko Kultur Etxean, odola emateko aukera izango da. Deialdia, ohiko emailaie eta nola ez, inoiz eman ez dutenei zabaldua dago, odola ematera animada daitezten.

Bizi Nahi elkartearen TAORI buruzko bilera

IBARRA • TAORI buruzko bilerari jarraipena eman eta erabakiak hartzeko bilera burutuko dute gaur Bizi Nahiren lokaletan. 20:00etan elkartuko dira eta lehengo asteko asteazkenean egin zuten bilerari jarraipena emango diete. Kasu honetan, bilera deialdia, herritarrek egin dute.




harpidedun izateak badu saria

1 Gazta

Larte gaztategiaren eskutik, ardi latxaren esne gordinez eginko gazta koipetsu bat eta gazta zahar krema ontzi bat


Ameri-Ondo Etxea • **BERASTEGI**
tel. 678 917 378



Larte

3 Haur literatur liburu sorta


Ibaizabal argitaletxearen eskutik, 4 haur literatur liburu osaturiko sorta



ibaizabal

2 6 disko

Gaztelupeko Hotsak disketxearen eskutik, **Bide Ertzean** taldearen **Leidor Sessions** CD-DVD berria



4 2 sarrera pare

JM Beltran eta Kukai

Azaroaren 6an Tolosako Leidorren eskainiko duten emanaldirako



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza



TURISMOAREN KALITATEA

«Gure zerbitzua hobetzeko etengabeko ahalegina egiten dugu Kalitatearen Q-ari esker»

Euskadin jada 267 dira Turismo Kalitatearen Q-a duten establezimenduak. Zerbitzua, azpiegiturak eta kudeaketa egokia ziurtatzen du egiaztagiriak. Horren adibide da Zestoako bainuetxea. Idoia Garaizabal bertako arduradunaren ustez, «alor honetan lanean ari direnentzat beharrezkoa da tresna hau». Kalitatearen Q-aren ondorioz, sail guztien artean koordinazioa hobetu dutela eta azpiegituran etengabe berrikuntzak sartzen ari direla nabarmentzen du.

Zeintzuk izan dira turismoarekin loturiko kalitatezko sistema eta programak aukeratzeko arrazoi nagusiak?

Guk ISO kalitadedun kudeaketa sistema dugu, baina, hala ere, turismoan berezituriko kalitatearen egiaztagiria izateak, bai guri bai eta gure bezeroei gure produktuaren inguruko informazio zehatza ematea dakar.

Ze onura izan du turismo bulegoarentzat Turismo Kalitatearen Q-a lortzeak?

Turismoaren kalitatearen egiaztagiria izatearen abantaila da gure zerbitzua hobetzeko helburuarekin ahalegin berezia egiten dugula unero.

Barne antolakuntzan ze ondorio izan dituzue? Kudeaketan? Azpiegituran?

Esan daiteke sail guztien artean koordinazio hobe dugu; barne komunikazioaren ondorioz edota kalitateari buruzko bilerengatik, guztiok dugu sail guztiatiko errealitate desberdinen berri. Azpiegiturari dagokionez, berrikuntza ere etengabekoa da. Gure bezeroei egoniko inkestaren arabera eta barne nahiz kanpo ikuskaritzetan izandako emaitzen arabera hartu ohi ditugu erabakiak, egin behar ditugun inbertsioen inguruan, eta hauek epe luzerako edota motzerako diren ere horren arabera erabakitzen dugu.

Bezeroari eskainitako zerbituari dagokionean hobekuntzak izan al dira?

Zerbitzuen kalitatearen kontrola bermea da euren presta-

kuntza ziurtatzeko, eta hori nabaritzen dute bezeroek. Ziurrenik zerbitzuen segurtasunarekin loturiko guztian, arlo bakterio logikoaren kasuan, bainuetxearen zerbitzuetan nahiz sukaldaritzan, bezeroen ezaugarrietan oinarriturikoa, edota gure zerbitzuen kudeaketa informatizatuan. Horietan, besteak beste, nabaritu dela esango nuke.

Turismoan lanean ari direnei nola azalduko zenieke Kalitatearen Q-ak duen garrantzia?

Zerbitzuak eskaintzen dituen kalitate sistema bat da, eta ho-

ri esker, eskaeraren eboluzioa ezagutzen dugu gure egoera jakitearekin batera. Horregatik, badakigu une oro zeintzuk diren gure bezeroen beharrak, eta horiek asebate ditzakegu era azkar batean.

Q-arena bezalako sistema gomendatuko al zenuke?

Zalantzarik gabe. Hasieran lan gehigarri bat dirudien arren, emaitzak epe motz eta luzera nabari dira.

Turismoaren Q kalitatearen prozesuak zure enpresa lehiakorrako izaten laguntzen al du?

Gaur egun, oso zaila da gure alorrean lehiakor izatea kalitatearen egiaztagiririk ez baduzu.

Zeintzuk uste duzu izan direla Q-aren prozesua abiatu zenuenetik landu dituzuen atalrik aipagarrienak?

Seguruenik gure zerbitzuen diseinua eta garapena dira gehien landu ditugunak. Askorentzat harrigarria izan daiteke hau, bi arlo horiek objektuen fabrikazioarekin lotu baitaitezke, eta ez hainbeste zerbitzuekin, baina ez du zertan horrela izan.

Kalitatearen kultura sustatzeko ze aldaketa egin dituzue edo egingo dituzue aurrera begira?

Etengabe hobetzen joateko taldeak ditugu, eta horretan egiten dute lan. Hauek prozesuetan daude zaituta, eta sail desberdinetako kideek hartzen dute parte, esaterako, batzorde birtualen garapena. Azkenik, denbora errealean egiten diren formazio kurtsoak ditugu; gure Intranetaren bidez ematen ditugu, eta horietan langileek nahiz arduradunek har dezakete parte.



Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrakoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

JARDUNBIDE EGOKIAK

Kalitatearekiko konpromisoa eta sentsibilitatea, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionali zuzendutakoa.

TURISMO KALITATEAREN Q-A

Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen iguripenen betekizunen bermea.

E.FQM BIKAIN TASUN EREDUA

Erakundeetako kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

JARRI
TURISMO-KALITATEAREN
Q-A
ZURE ESTABLEZIMENDUAN!

946077586
944047470

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net



Gaur hasiko da Kultur Hamabostaldia

Orexa » Juantxo Agirrek Orexa eta Erdi Aroko gazteluen inguruan hitz egingo du gaur, 21:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko da Orexako Kultur Hamabostaldia 21:30ean Aranzadi zientzia elkarteko Juantxo Agirrearen Orexa eta Erdi Aroko gazteluak hitzaldiarekin. Kultur Hamabostaldia azaroaren 7an amaituko da.

Hitzaldia

Agirre, aipatu moduan, Orexa eta Erdi Aroaz ariko da. Izan ere, Orexa Erdi Aroan, Tolosaldeko herrixka guztiek egin zuten moduan, Tolosak bermatzen zuten babesa ontzat eman zuten aukozideek eta Tolosarekin egin zuten bat, 1374. urtean.

Batasunari esker, garai harteko handikiek sortu ahal zitzaizkien kalteak saihestu nahi izan zituzten. Horiok horrela, Tolosako alkatearen esku utzi zuten bertakokak epaitzeko gaitasuna. Tolosak, hala ere, ez zuen inoiz Orexako lurrik hartu, herriko mugak ez ziren desagertu eta.

Aranzadiko kidea, hau guztiaz, ariko da gaur.

» EGITARAUA

Gaur

■ **21:30.** Aranzadi zientzia elkarte-ko Juantxo Agirrearen Orexa eta Erdi Aroko gazteluak izeneko hitzaldia.

Etzi, ostirala

■ **19:00.** Talo egitea eta afaria, ondoren bideo emanaldia: *Errezilgo garri lanak*.

Urriak 31, larunbata

■ **16:30.** Puzgarriak umeentzat, ondoren merienda banatuko die-
te.
■ **22:30.** Antzerkia: Ate joka.

Azaroak 1, igandea

■ **09:30.** Uitz-i-Orexa ibilaldia.
■ **14:00.** Herri bazkaria eta Eneritz eta Edurne trikitalariak.

Azaroak 3, asteartea

■ **21:30.** Martxel Aizpuruaren *Erleak, gure lagunak* hitzaldia.

Azaroak 6, ostirala

■ **22:30.** Lain taldearen kontzertua.

Azaroak 7, larunbata

■ **21:00.** Herri afaria. Ondoren erromeria Gari eta Iñakiren taldearekin eta Dj Bullekin.



Aurten ere taloak egingo dituzte Kultur Hamabostaldiaren baitan. E. EZBIZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Ramon Olasagastik Xabier Mendiguren Elkarreko editorea ondoan zuela egin zuen liburuaren aurkezpena. R. CALVO

Manuel Iradierren biografia idatzi du Olasagastik

Berrobi» 'Afrika' liburu mardularen idazlearen figura berreskuratu nahi izan du berrobitarrak biografia hau idatziz.

REBEKA CALVO

Ramon Olasagastik (Berrobi, 1972) Manuel Iradier (1854-1911) esploratzaile gasteiztarraren biografia kaleratu berri du Elkar argitaletxearekin *Manuel Iradier. Afrikako arimaren esploratzailea* izenpean. Olasagastik Donostian egin zuen aurkezpena Pedro Zubergoitiarekin batera, zeinak Fil-del Castroren biografia idatzi duen. Berrobitarrak Iradierren figura berreskuratu nahi izan du lan honekin, izan ere «lanbidez mendiarri eta bidaiari lotutako kazetaritza iratutana goenez, gertuko pertsonaia da Iradier». Gasteiztarrak bi bidaiari egin zituen Afrikara, baina bere grina historian nolabaiteko ondarea uztea bazen ere, ez zuen lortu eta nahiko egoera kaskarrean hil zen Segoviako (Espainia) herrixka batean.

«Gure esploratzaile handia»

Olasagastik Iradier «gure esploratzaile» handia izan dela nabarmendu zuen eta baita «lurraldeak konkistatzera joan ordez lurraldeak ezagutzera eta esploratzera» joan zela ere.

Hitz batean deskribatu behariko balu «ameslari» izenlaguna erabiliko lukela ere esan zuen berrobitarrak. «Oso grinatsua izan zen eta txikitatit izan zuen esploratzaile izateko gogo eta grina hori», argitu zuen. Horren adibide da, «14 urte besterik ez zituela Circulo Vitoriana deitu zituela hainbat lagun eta herritar El Cabo Hiirtik (Hegoafrika) Tripolira (Libano) joan

nahi zuela, hiru edo lau urte Afrikan emannahi zituela esan zien eta kontinente guztia zeharkatu nahi zuela». Hitzaldi honen ondotik Joven Esploradora elkarteak sortu zen eta hori izan zen nolabait, garai hartako «Gasteizko gazte askoren ametsen fabrika». «Elkarreko gaur burutzat hartu zuten ezezaguna ezagutzera eta helburutzat ere bai, eta Arabako geografian barna ibilaldiak egiten aritu ziren, etnografiako hainbat irteera egiten...», argitu zuen berrobitarrak.

Iradier, hain justu, aipatu talde honetako ekintzetan zaildu zen eta bere lagunei Livingstone, Burke edo Stanley pertsonaien bidaien inguruan hitz egiten zien. Stanleyrekin ere topo egiteko aukera izan zuen Gasteizen eta bertan bere asmoen berri eman zion, baina Stanleyek argi esan zion zer behar zuen: «Dirua eta dirua». Berak esan zion baita, hobe zuela Espainiako orduko kolonietatik hastea eta handik ekitea esploratzea.


20 urterekin

20 urterekin emaztearekin ezkondu berri zela abiatu zen kolonietara, koinata eta guzti. Lagunei esker 10.000 pezeta biltzea lortu zuten eta orduan abiatu ziren.

Ibilaldia ezohikoa izan zen, ez baitzihazten inorren ordezkari moduan, eta hori da, hain justu, «Iradierren berezitasuna». Hain xalo eta bakar ekitea horrelako abentura bat, nabarmendu zuen Olasagastik. «Beharbada ez zen puntako esploratzailea izan, baina bai benetako abenturazalea», gaineratu zuen.

Lehen bidaiari horretan gaixoaldi asko izan zituzten, Iradier bera hil artean horren ondorioak jasan behar izan zituelarik, eta alabetako bat ere han bertan hil zen. «Lehen bidaiaren bueltan ez zuen aitorza

» DATUAK



- **Izenburua.** Manuel Iradier. Afrikako arimaren esploratzailea.
- **Egilea.** Ramon Olasagastik.
- **Argitaletxea.** Elkar.
- **Salneurria.** 12,75 euro.
- **Orrialde kopurua.** 176.

handirik jaso. Gerora idatzi zituen erreportajea eta idatziekin bai lortu zuela nolabaiteko aitorza, baina ez segituan». 1884. urterarte ez zuen izan bigarren bidaiari egiteko aukera, baina hau «ez zen izan bere gustukoa». «Madrilgo geografia elkarteak antolatutako espedizioa Frantzia eta Alemania beraien kolonia puskak kentzen ari zireneko beldur zirenez, horiek babesteko. Ardura Iradierri eman zioten, baina hura ia koloniak finkatzeko bidaiari bat zen eta Iradierrekin ez zuen horren gustoko». Han zegoela berri ere gaixotu zen eta hilabete gutxietara itzuli behar izan bazuen ere. Bidaiari honek besteak baina sona gehiago izan zuen, nahiz eta porrot egindako espedizioa izan.

Manuel Iradierrek azkenean lortu du, hala ere, «historiari nahi-ko modu duinean pasatzea».

Laburrak

Tolosa Kantari ekimenerako entsegua

KULTURA • Tolosa Kantari kantu-jirarako entsegua egingo dute gaur. Tolosako Udaleko Musika Eskola-ko areto nagusian (Gorosabel Zaharrear) izango da entsegua, 20:00etatik aurrera. Tolosa Kantari ekimena larunbatean izango da, ohi bezala, hileko azken larunbatean. Bai entseguan, bai eta kantu-jiran edonork hartu ahalako du parte.

Tolosa CFren deialdia futbol eskolan aritzeko

FUTBOLA • 1998. urtean jaiotako neska eta mutil guztiei zuzenduriko deialdia zabaldu du Tolosa CFk. Futbol eskolan parte hartu nahi duenak Tolosa CFren egoitzara jo beharko du, edo bestela 943 67 17 49 telefono zenbakira deitu. Bulegora jo edota telefonoz hots egitearen euren datuak utzi beharko dituzte interesatuek. Futbol eskola azaroaren 3an hasiko dela jakinarazi dute arduradunek. Asteartean izango dira eskolak, 17:15etik 19:00etara.

Kanposantura joateko autobus zerbitzu berezia

GIZARTEA • Igande honetan, hau da, azaroaren 1ean, Santu Guztien Eguna izaki, hiribusa edo Tolosako urbanoaren zerbitzu berezia jarriko dute kanposantura. Urriaren 31n ohiko zerbitzua egingo du hiribusak, San Blas ermitan geltokia duelarik. Azaroaren 1ean, berriz, 09:00etan Santa Klarako geltokian hasita, 45 minuturo autobusa egongo da kanposantura joateko. Goizean 12:45ean izango da azken autobusa, eta arratsaldean 15:00etan hasita, 18:00ak arte izango da zerbitzua. Santa Klara, Foruen Etorbidea, geltokia, Iurrea-mendiko biribilgunea, lurre, Paper Eskola, Amaratz, kanposantua, Iparragirre, Bizkaia kalea eta Santa Klara izango da autobusak egingo duen ibilbidea.

@ Abesbatza Lehiaketa. Eskualdeko egunkariak Abesbatza Lehiaketarako sarrerak zozketatzen ditu bere harpidedunen artean. Batetik eguneroko emandietarako txartelak eskuratzeko aukera dago, Hitzaren egoitzara deituta, 943 65 56 95 zenbakira. Bestetik, Abesbatzen Lehiaketako azken emanaldirako txartelak lortzeko gure webgunean sartuta egin ahaliko da. Eztabaidak atalera jo, eta Abesbatzen inguruan esateko duzuna kontatu besterik ez duzu egin beharko. Hori bai, zure e-maila jartzea beharrezkoa izango da, zozketan parte hartu ahal izateko. Beraz, badakizu, parte hartu zozketan eta Abesbatzen Lehiaketara joateko aukera izango duzun:

www.tolosaldekohitza.info

Txistu, piano eta ahots kontzertua gaur, eta Asier Izagirreraren hitzaldia etzi

Kultura • Aiz Orratz-Veleta elkartearen 75. urteurrenaren harira antolaturiko azken ekitaldiak izango dira.

IÑIGO TERRADILLOS

Maiatzaren 12an bete zituen 75 urte Aiz Orratz-Veleta elkarteak, eta urteurrenaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte urte osoan zehar. Aste honetan izango direnekin amaituko dute egitaraua. Hain zuzen ere, gaur txistu, piano eta ahots kontzertua izango da, Musika Eskolan, 19:30ean, eta etzi, Asier Izagirre mendigoizale tolosarrak hitzaldia emango du, Kultur Etxean, 20:00etan.

Txistu, piano eta ahots kontzertuan Ion Garmendiak, Yon Labayenek eta Jon Villatek hartuko dute parte. Ion Garmendia musikari ibartarrak txistu ikasketak Ibarra, Tolosa eta Gasteizen burutu ondoren, alboka, txalaparta eta pandero ikasketak egin zituen, eskual musika tresnetan eskarmentu handia lortuz. Hainbat tal-



Ion Garmendia, eskuinean, 20 Hatz proiektuko kideekin. R. CALVO

de ezberdinetan parte hartu du, Kepa Junkera, Ibon Koteron, Oreka Tx, Tejedor, Kila eta Tolosako Txistulari Banda, besteak beste. Egun, Iñaki Plazarekin batera, euskal musikatresnetan oinarrituriko *20 Hatz* proiektuan dago murgildurik, maiatzean kaleratu dutelarik lehen diskoa.

Yon Labayen Aiz Orratz elkarte-ko bazkidea, zazpi urterekin hasi zen musika ikasten Tolosako Musika Eskolan eta bertan bukatu zituen erdi mailako piano ikasketak. Ondoren Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan jarraitu zuen ikasten, goi mailako piano titulua lortuz. 2006-2008 urteetan

Zarauzko Nazioarteko jazz mintegietan parte hartu zen.

Jon Villate abeslari donostiarra, musika estilo desberdinetako talde askotan parte hartu du, besteak beste, herri musika (Egan, Basakabi), Rock (Weekend, Zordak), Jazz (Dixikleta Jazz Band) edo Eresmin ganbara abesbatzan tenore gisa aritu da. Egun, Donostiako Musika Eskolan ari da bere ikasketak burutzen, Karmele Iriarte sopranoarekin.

Asier Izagirreraren hitzaldia

Urteurreneko azken ekitaldia etzi izango da, Asier Izagirre mendigoizalearen hitzaldia. Ikus-entzunezko batez lagunduriko solasaldia eskainiko du tolosarrak. Batez ere 2009 urtean bizitu dituen esperientziez jardungo da. Hala, udaberrian Kangchenjunga gailurra igotzeko espedizioa nolakoa izan zen kontatuko du, eta Edurne Pasabanekin batera izan duen azken espedizioan bizitakoak ere azalduko ditu. Shisha Pangma izan da euren azken saiakera, baina bertan behera utzi beharra izan dute eguraldi txarra dela eta.

«Duela hiru egun etxera itzuli nahi nuen, baina dagoeneko mendira bueltatzeko gogotsu nago»

ASIER IZAGIRRE • Mendigoizalea

Mendia • Shisha Pangmako espediziotik itzuli berritan, hitzaldia emango du etzi, Kultur Etxean, 20:00etan hasita.

I. TERRADILLOS

Asier Izagirre mendigoizaleak urte honetan bizitako esperientziak kontatuko ditu etzi emango duen hitzaldian. Kultur Etxean izango da 20:00etatik aurrera.

Shisha Pangmatik itzuli berri zaretu. Ez, ordea, gailurra eginda.

Ez. Beraz, hutsune sentsazioarekin, sentitzen zara, triste. Fisikoki ez dugu lan handiegirik egin azken espedizio honetan, baina, esan bezala, psikologikoki golpe handia da.

Zergatik hartu zenuten espedizioa bertan behera uzteko erabakia?

Eguraldiak ez du lagundu gailurra egiteko. Batez ere, haize handia izan da arazoa. Baina, horrelakoetan atzera egitea zentzuzko erabakia izaten da, izan ere, egongo dira gero ere saiakera gehiago. Gu kanpalekuan eguraldiari begira itxarrotan ari ginen bitartean, beste mendigoizale batzuk gailurrari

ekin zitoten, eta gerora jakin genuen euren taldeko lagun bat bidean geratu zela. Beraz, ondo pentsatuta hartu behar dira erabakiak.

Horrelako berriek ez dute atzera egin arazten?

Duela 3 egun etxera itzultzeko irrikaz nengoen, atsedean hartzeko. Baina, orain, mendira joateko gogoz nago berriro. Horrelakoak gara mendizaleak.


Noiz egingo duzue hurrengo saiakera?

Datorren urtean Edurne Pasabani geratzen zaizkion azken bi zortzimilakoak egin nahi ditugu. Horregatik otsaila bukaeran joango gara. Shisha Pangma igotzea da gure helburua, eta klimarekin egokitu egongo garela baliatuz, segidan Annapura igotzen saiatuko gara. **Azken espedizioaz gain, zer gehiago azalduko duzu etziko hitzaldian?**

Ikus-entzunezko bat jarriko dut solasaldia laguntzeko, eta Shisha Pangmakoaz gain, Kangchenjungako espedizioa nola joan zen ere kontatuko dut. Bestalde, gure espedizioen inguruan hainbatek esandakoak argitzean saiatuko naiz. Izan ere, jendeari esango nioke gauzak kontatzen dituenetan benetan diren bezala esateko.



IT.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



22°
15°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 23°
HOTZENA 14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Mugikortasun mahaiaren dokumentua aurkeztuko diete bizi-lagunei udal aretoan 20:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Genikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

» IRRATIA

Txolarre irrattia

11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia (Eguraldia, eskualdeko albistegia, oharrak, agenda...), Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.

13:30-14:00.

Albistegia - Info 7.

14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.

17:00-17:45. Musika nobedadeak.

17:45-18:00. Argia astekaria

18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena).

20:00-20:30. Albistegia, Info 7.

21:00-23:00. Bide okerretik.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Klipak. **09:00.** Alex eta Alex.
09:30. Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kale kantoian. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erloklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** EH lau haizetara. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka-Muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kale kantoian. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erloklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** EH lau haizetara. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka-Muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa kultura. **18:30.** On ein! **19:00.** Saio berezia: Backstage musika. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Klipak. (*16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduko errepikatzen da).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Teknologien garrantziaz jabetuz

Tolosa » Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien Astean zortzi ikastaro eskaintzen ari dira.

ERREDAKZIOA

Lehiberrik Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroak, Tolosaldea Garatzen eta Enpresa Digitalarekin batera elkarlanean, Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea ari da garatzen egunotan. Hala, ostiralera arte zortzi ikastaro eskainiko dituzte, doakoak gainera, «teknologia berriei duten garrantziaz jabetzeko».

Guztira bi orduko iraupena izaten ari diren zortzi ikastaro desberdin dira aste honetan zehar garatuko direnak, eskualdeko zenbait industrialgunetan banatuta. Atzokoak, esaterako, Apatta industrialdean izan ziren eta *Internet: erakusleho berri bat, Aurreztu telefonian: Skype eta IP telefonía eta Faktura elektronikoa erabiliz gastuak aurreztu* gaiak landu zituzten.

KZgunean ere jardunaldiak izaten ari dira, 14:00etatik 16:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Ostira-lean berri, 14:30etik 16:30era izango da ikastaroa.

Lehiberrinen helburuak

Berrikuntzan eta formazioan oinarrituz eskualdean ekonomia eta enplegua sustatzeko helburuz sortu zuten Lehiberri Eskualdeko zortzi enpresek, hiru udalek (Tolosa, Alegia eta Asteasu), bi formazio zentrok, Tolosaldea Garatzen eta Gipuzkoako Berritzenek; enpresariekin eta enpresarietzat egiten da lan.



Atzo Usabalgo industrialdean jarri zuten autobus ibiltaria. N. LATABURU

» EGITARAUA

Urriak 28, gaur

Irurako Katategi industrialdean:

■ 09:30-11:30: *Aurreztu telefonian: Skype eta IP telefonía.*

■ 12:00-14:00: *Faktura elektronikoa erabiliz gastuak aurreztu.*

■ 15:00-17:00: *Mugikortasuna: lan egin ezazu non-nahi bulegoan izango bazina bezala.*

Urriak 29, bihar

Asteasuko industrialdean:

■ 09:30-11:30: *Zure enpresa bilatzaileen lehen postuetan.*

■ 12:00-14:00: *Internet:erakusleho berri bat.*

■ 15:00-17:00: *Hobetu zure produktibitatea doako erremintekin.*

Adunako Haizpea-Urtakin:

■ 09:30-11:30: *Faktura elektronikoa erabiliz gastuak aurreztu.*

■ 12:00-14:00: *Lan egin ezazu non-nahi bulegoan izango bazina bezala.*

A Agurrak



Urte askoan!

Hegoi Baraibar Goñi (Areso).

Zorionak mutiko, dagoeneko bost urte! Muxu handi bat eta ondo pasa. Berrobiko aitona-amonak.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



41.
ABESBATZA
LEHIAKETA



Sariduna: **Oihana Agirre (Tolosa)**

Urriak 28ko

Abesbatzen emanaldirako

Asteazkena • 19:30ean



HITZAK harpideduntzat **sarrerera** pareta du urriak 29ko **Abesbatzen emanaldirako** Osteguna • 19:30ean